NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

5498

AGINDUA, 2008ko abuztuaren 6koa, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko sindikatu-izaerako nekazaritzako erakunde profesionalentzako laguntzetarako 2008ko ekitaldiko deialdia egiten duena.

2003ko ekitaldian argitaratu zen Euskal Autonomia Erkidegoko sindikatu-izaerako nekazaritzako erakunde profesionalentzako laguntzetarako 2003ko ekitaldiko deialdia egin zuen Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 2003ko urriaren 7ko Agindua, hain zuzen ere 2003ko urriaren 24ko 208 zenbakidun Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. 2004, 2005, 2006 eta 2007ko ekitaldietan ere laguntza horietarako deialdia egin zen, eta, agindu honen bitartez orain arte ibilitako bideari jarraitu nahi zaio 2008. urtean aurreko ekitaldietan hasitako politikari eutsiz. Horregatik, agindu-proiektuak, 2003ko urriaren 7ko Aginduak bere garaian ezarritako arauak jaso ditu, dagozkion egokitzapenekin.

2008ko laguntza hauetarako deialdia honako arau hauen babesarekin egin da: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua, eta, Euskal Autonomia Erkidegoko 2007. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 28ko 15/2008 Legea.

Deialdi hau egiteko, kontuan hartu dira Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak diru-laguntzak emateko ezarritako arauak eta honako beste dekretu eta lege hauek xedatutakoa: 689/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena; eta 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena, lege hori aldatu zuen urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako idazkerarekin. Aipatutakoez gain, honakoak ere kontuan hartu behar dira: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.1.c) artikulua, hau da, eskatzaileak ez daudela artikulu horretan aipatutako egoeraren batean ziurtatu behar da (aipatutako legeak aldatu egin zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50. artikulua). Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren konturako diru-laguntzen onu-

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

5498

ORDEN de 6 de agosto 2008, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se convocan ayudas a las Organizaciones Profesionales Agrarias de carácter sindical de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el ejercicio 2008.

En el ejercicio 2003, se dictó la Orden de 7 de octubre de 2003, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se convocaron para el año 2003 ayudas a las Organizaciones Profesionales Agrarias de carácter sindical de la Comunidad Autónoma del País Vasco, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 208, de 24 de octubre de 2003. En los sucesivos ejercicios 2004, 2005, 2006 y 2007 se continuaron convocando las citadas ayudas, y mediante la presente Orden se pretende continuar durante el ejercicio 2008 con la línea seguida hasta el momento que da continuidad a la política ya iniciada en precedentes ejercicios. Por ello, el Proyecto de Orden recoge la regulación establecida en su momento por la Orden de 7 de octubre de 2003, con las oportunas adaptaciones.

El Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, y la Ley 15/2007, de 28 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2008, permiten realizar la convocatoria de las presentes ayudas para el ejercicio 2008.

Para su elaboración se han tenido en cuenta las normas sobre concesión de subvenciones establecidas en el citado Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, así como lo dispuesto por el Decreto 689/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegro de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las Entidades Colaboradoras que participan en su gestión, la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de régimen Jurídico de las Administraciones Publicas y del Procedimiento Administrativo Común, en su redacción dada por la Ley 4/1999, de 13 de enero, que la modifica. Asimismo hay que tener en cuenta lo dispuesto por la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, respecto a la necesidad de acreditar que las personas solicitantes no se encuentran incursas en ninguna de las circunstancias recogidas en el artículo 3.1.c) de la mencionada Ley, que modifica el artículo 50 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, así como la normativa de actualización del año en curso sobre acreditación de obligaciones tributa-

radunek zerga-betebeharrak betetzen dituztela frogatu behar dutela adierazten duen aurtengo araudi eguneratua ere kontuan hartu behar da.

Aurreko guztiaren ondorioz, eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren egitura organikoa eta egitekoena finkatzen duen urriaren 11ko 290/2005 Dekretuarekin bat etorriz, 2005eko ekitaldiari dagozkion laguntzen deialdia egin da, eta honakoa

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.– Helburua.

1.– Agindu honen helburua hau da: Euskal Autonomia Erkidegoko sindikatu-izaerako nekazaritzako erakunde profesionalentzako laguntzak iragartzea 2008ko ekitaldirako, euskal nekazaritza-sektorearekin zerikusia duten gaietan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren hizketakide modura egindako lana dela-eta.

2.– Agindu honi dagokionez, sindikatu-izaerako nekazaritzako erakunde profesionalak hauek dira: Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-sektorearen interes orokorrak ordezkatzea eta defendatzea xedetzat duten eta nekazaritzako profesionalez osaturik dauden erakundeak, inolako bereizketarik egin gabe profesionalek diharduten ekoizpen-azpisektorearen arabera.

Bigarrena.– Eskabideak aurkezteko epea.

Agindu honen bidez 2008. urterako iragarritako diru-laguntzak eskatzeko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Hirugarrena.– Eskabideak.

1.– Eskabideak Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saileko Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari zuzendu behar zaizkio, eta saileko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira (Donostia kalea 1, Lakua I, 3. solairua, 01010, Vitoria-Gasteiz), bai zuzenean bertara joanez, bai Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 38.4. artikuluak aurreikusitako edozein eratan.

2.– Erakunde eskatzailearen legezko ordezkariak sinatuta egongo da eskabidea, eta ondoko agiri hauek batu behar zaizkio:

a) Eraketa-akta eta administrazio-organo eskudunak ikus-onetsitako estatutuak. 2007ko urriaren 17ko Aginduaren kontura laguntzarik eskatu eta lortu duten nekazaritzako erakunde profesionalak betebehar honetatik salbuetsiko dira, estatutuak aldatu izan ezean, kasu horretan aldaketaren berri eman behar baitiote Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari.

rias por las personas beneficiarias de subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En consecuencia, de conformidad con el Decreto 290/2005, de 11 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, se procede a la convocatoria de las ayudas correspondientes al ejercicio 2008.

RESUELVO:

Primero.– Objeto.

1.– La presente Orden tiene por objeto convocar para el ejercicio 2008, las ayudas a las Organizaciones Profesionales Agrarias de carácter sindical de la Comunidad Autónoma del País Vasco, por el desarrollo de las funciones de interlocución social con la Administración General de la Comunidad Autónoma en materias referentes al sector agrario vasco.

2.– A los efectos de la presente Orden, se considerarán Organizaciones Profesionales Agrarias de carácter sindical aquellas que tengan por objeto la representación y defensa de los intereses generales del sector agrario de la Comunidad Autónoma del País Vasco y estén integradas por profesionales de la agricultura, sin diferenciación por razón del subsector de la producción agraria a que estuvieren dedicados.

Segundo.– Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes, para el año 2008, de las ayudas convocadas por la presente Orden, será de un mes contado desde el día siguiente al de la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Tercero.– Solicitudes.

1.– Las solicitudes se formularan en instancia dirigida a la Dirección de Agricultura y Ganadería del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación y se presentarán en el Registro General del mismo, en la calle Donostia-San Sebastián 1, Lakua I - 3.ª planta, 01010 Vitoria-Gasteiz, bien directamente o bien por cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– La solicitud irá firmada por el representante legal de la Organización solicitante, acompañada de la siguiente documentación:

a) Acta de constitución y estatutos visados por el órgano administrativo correspondiente. Quedan exentas de este requisito la Organizaciones Profesionales Agrarias que hayan solicitado y obtenido ayuda con cargo Orden de 17 de octubre de 2007, salvo modificaciones estatutarias que habrán, en su caso, de comunicarse a la Dirección de Agricultura y Ganadería.

b) Estatutuak gordailuturik dauden Erregistroko arduradunak egindako ziurtagiria: inskripzioa indarrean dagoela egiaztatuko du.

c) Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dagoela frogatzen duten agiri gaurkotuak.

d) Erakunde bakoitzaren afiliatu-kopurua, Gizarte Segurantzako nekazaritzako araubide berezian daudenen kopurua ere adierazita; hori egiaztatzeko, erakunde bakoitzeko idazkariak egindako ziurtagiria aurkeztuko da.

e) Agindu honetan aurreikusitako laguntzei heltzeko elkarte-erabakiaren ziurtagiria.

f) Erakundearen legezko ordezkariaren zinpeko adierazpena, honako hauen ondoriozko zehapenik betetzen ez egotea egiaztatzen duena: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea aplikatuta emandako diru-laguntza edo laguntza publikoko gaietan jarritako zehapen irmoa, sexu-bereizkeria egiteagatik jarritako administrazio-zehapena edo zehapen penala. Adierazpen horrek, halaber, adierazi behar du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea aintzat hartuta eskatzaileak ez daukala debekatuta laguntza eta diru-laguntzetako deialdietan parte hartzea.

3.– Eskabideak baldintza guztiak betetzen ez baditu, interesdunari hamar eguneko epean hutsa zuzen dezala edo nahitaezkoak diren dokumentuak aurkez ditzala eskatuko zaio; hala egin ezean, bere eskaera bertan behera utziko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 42. artikuluaren arabera ebazpena eman ondoren.

Laugarrena.– Finantziazioa.

Oraingo deialdi hau finantzatzeko 260.000 euro erabiliko dira guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko 2008. urteko Aurrekontu Orokorretan horretarako gaitu den kredituaren barruan. Zenbateko horrek aurrekontu-aldaketak izan ditzake, indarrean dauden legeen arabera. Halakorik gertatuz gero, aldaketa horietatik datorren aurrekontuko diru-izendapenaren berri emango da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko sailburuordearen ebazpen baten bidez.

Bosgarrena.– Laguntza-mota.

Agindu honen bidez araututako laguntzak itzulgarriak ez diren funts ekonomikoak dira, eta jarraian adieraziko diren kontsulta-organo eta lantaldeetara joateak eta horietan parte hartzeak nekazaritzako erakunde profesionalei eragindako gastuak ordaintzeko emango dira:

– Nekazaritzako Aholku Mahai Nazionala eta bere batzorde sektorialak.

b) Certificación expedida por el encargado del Registro en que se encuentren depositados los estatutos, acreditativo de la vigencia de la inscripción.

c) Justificación documental actualizada de hallarse al corriente de las obligaciones tributarias y con la seguridad social.

d) Número de afiliados a cada Organización, indicando el número de los que están incluidos en el Régimen Especial Agrario de la Seguridad Social, acreditado mediante certificación expedida por el Secretario de cada una de ellas.

e) Certificación del acuerdo adoptado por la Organización para acogerse a las ayudas previstas en la presente Orden.

f) Declaración jurada del representante legal de la Organización de no estar cumpliendo sanción como consecuencia de sanción firme impuesta por infracción en materia de subvenciones o ayudas públicas en aplicación de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco o sanción administrativa o penal por incurrir en discriminación por razón de sexo, ni estar sancionada con la prohibición de concurrir a las convocatorias de ayudas y subvenciones en virtud de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

3.– Si la solicitud no reúne todos los requisitos, se requerirá a la persona interesada para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Cuarto.– Financiación.

Se destinará un total de 260.000 euros a la financiación de la presente convocatoria dentro del crédito habilitado al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2008. Este importe podrá ser objeto de modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente. En tal caso, la consignación presupuestaria que resulte de la aprobación de dichas modificaciones se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco mediante Resolución del Viceconsejero de Desarrollo Agrario y Pesquero.

Quinto.– Naturaleza de las ayudas.

Las ayudas reguladas por la presente Orden consisten en entregas no reintegrables de fondos económicos dirigidas a indemnizar los gastos generados por las Organizaciones Profesionales Agrarias como consecuencia de su asistencia y participación en los siguientes órganos consultivos y grupos de trabajo:

– Mesa Consultiva Nacional Agraria y sus Comisiones Sectoriales.

– Landaberriren baitan eratutako lantaldeak.

– Landa Garapenerako Kontseilu Aholkularia.

Seigarrena.– Betekizunak.

Nekazaritzako elkarte profesionalek agindu honetan araututako diru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan edukitzea.

b) Legez eratuta egotea eta nortasun juridiko propioa izatea.

c) Agindu honen ebazpenaren bosgarren zatian aipatzen diren kontsulta-organo eta lantaldeetariko batean parte hartzea.

Zazpigarrena.– Ebazpena.

1.– Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariak ebatziko du diru-laguntza ematea ala ez ematea, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saileko Nekazaritza Politikako Batzordeak txostena egin ondoren. Hiru hilabete izango dira ebazpena emateko, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unetik kontatzen hasita.

2.– Hiru hilabeteok igaro eta ebazpen zehatzik eman eta jakinarazi ez bada, interesdunek beraien eskabideak ezetsi egin direla ulertu ahal izango dute, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 44. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

3.– Ematen den ebazpenaren aurka, bai eta epea igaro eta ebazpen zehatzik eman ez izanaren aurka, interesdunek gorako errekurtsoa jar diezaiokete Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko sailburuordeari, 30/1992 Legearen 114. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Zortzigarrena.– Laguntza kalkulatzeko prozedura.

Onuradun gertatzen den elkarte profesional bakoitzak jasoko duen zenbateko osoa honako prozedura honen arabera zehaztuko da:

a) Lehenengo eta behin, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2008ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorretan xede honetarako erreserbatuta dagoen zenbatekoa Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoen artean hainbanatuko da, eta horren emaitza lurralde historiko bakoitzean diharduten erakunde profesional guztiek batera jasoko duten gehieneko zenbatekoa izango da.

b) Lurralde historiko bakoitzari egotzitako zenbatekoa honela banatuko da:

– Heren bat hainbanatuko da delako lurralde historikoan diharduten erakunde profesionalen artean.

– Beste heren bat proportzioan banatuko da erakunde profesionalen artean; hain zuzen ere, Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Araubide Berezian izena

– Grupos de trabajo creados en el seno de Landaberri.

– Consejo Consultivo de Desarrollo Rural.

Sexto.– Requisitos.

Podrán solicitar las subvenciones reguladas en la presente Orden las Organizaciones Profesionales Agrarias que cumplan los siguientes requisitos:

a) Que su domicilio social radique en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Que estén legalmente constituidas y dotadas de personalidad jurídica propia.

c) Que participen en alguno de los órganos consultivos y grupos de trabajo que se citan en el Resuelvo Quinto de la presente Orden.

Séptimo.– Resolución.

1.– La concesión de las subvenciones, previo informe de la Comisión de Política Agraria y Alimentaria del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, será realizada mediante Resolución del Director de Agricultura y Ganadería en un plazo máximo de tres meses desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

2.– Transcurrido dicho plazo sin haberse dictado y notificado resolución expresa, las personas interesadas podrán entender desestimadas sus solicitudes de conformidad con lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– Contra la resolución que se dicte o transcurrido el plazo para resolver sin haberse dictado resolución expresa, podrá interponerse por las personas interesadas recurso de alzada ante el Viceconsejero de Desarrollo Agrario y Pesquero, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 114 de la citada Ley.

Octavo.– Procedimiento de cálculo de la ayuda.

La cuantía total a percibir por cada organización profesional que resulte beneficiaria, se determinará de conformidad con el siguiente procedimiento:

a) En primer lugar, se dividirá el importe reservado a este fin previsto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2008 a partes iguales, entre los Territorios Históricos de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, siendo la cuantía resultante la máxima a percibir por el conjunto de Organizaciones Profesionales con ámbito de actuación en cada Territorio Histórico.

b) La cantidad imputada a cada Territorio Histórico se distribuirá de la siguiente forma:

– Un tercio a distribuir uniformemente entre las Organizaciones Profesionales con actividad en dicho ámbito territorial.

– Un tercio a distribuir proporcionalmente entre las Organizaciones Profesionales en función del número de afiliados que pertenezcan al Régimen Especial Agrario

emanda dauden afiliatu-kopuruaren arabera, hirugarren ebazpen-zatiaren 2.d) paragrafoan ezarritakoarekin bat etorriaz.

– Gainontzeko herena ere proportzioz banatuko da, Administrazioaren hizketakide modura egindako lanen arabera. Horretarako, Nekazaritzako Aholku Mahai Nazionalaren eta batzorde sektorialen, Landaberriren barruan sortzen diren lantaldeen eta Landa Garapenerako Kontseilu Aholkulariaren bileretara joatea eta horietan parte hartzea izango da irizpidea. Joate eta parte-hartze hori bileretako aktaren kopiaren bidez egiaztatuko da, eta bilera bakoitzeko idazkariak agiri hori kautotuko du.

Bederatzigarrena.– Ordainketa.

Emandako diru-laguntza ordainketa bakarraren bidez gauzatuko da, dagokion ebazpena eman ondoren.

Hamargarrena.– Bateragarritasuna.

Agindu honetan aurreikusitako laguntzak bateraezinak dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak emandako beste edozeinekin, baldin eta helburu bera badute (agindu honetako bosgarren ebazpenzatian aipaturiko foroetara joateko eta horietan parte hartzeko lanak finantzatzea).

Hamaikagarrena.– Betebeharrak.

Onuradunak bere gain hartuko ditu, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 50.2. artikuluan ezarritako betebeharrak, eta, bereziki, behartuta egongo da xedapen honen kontura jasotako laguntzei buruz Ekonomi Kontrolerako Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak -haien eginkizunak betetzeko- eska ditzaketen argibide guztiak ematera.

Hamabigarrena.– Bete beharrekoak ez betetzea.

Agindu honetan ezarritako baldintza guztiak bete behar ditu onuradunak. Hala egiten ez badu, edo gezurrezko daturik aurkezten badu -Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak hasiko duen espedientea tramitatu ondoren, eta interesdunari entzuteko hamabost eguneko epea igaro ondoren-, onuradunak diru-laguntza galduko du, eta jasotako ordainak eta aplikatzekoak diren legezko korrituak itzuli beharko dizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari bi hilabeteko epearen barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legean ezarri bezala, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan aurreikusitako prozeduraren arabera.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehenengoa.– Administrazio-bidea agortzen duen agindu honen aurka interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuari hilabeteko epean.

de la Seguridad Social, con arreglo a lo establecido en el Resuelvo Tercero, párrafo 2.d).

– El tercio restante se distribuirá proporcionalmente en función a las actividades de interlocución con la Administración, por la asistencia y participación en las reuniones de la Mesa Consultiva Nacional Agraria y sus Comisiones Sectoriales, en los grupos de trabajo que se creen en el seno de Landaberri y en el Consejo Consultivo de Desarrollo Rural. La asistencia y participación serán acreditadas mediante copia del acta de las sesiones celebradas, autenticada por el Secretario de las mismas.

Noveno.– Pago.

El abono de la subvención concedida se realizará a través de un pago único, una vez dictada la Resolución correspondiente.

Décimo.– Compatibilidad.

Las ayudas previstas en esta Orden son incompatibles con cualesquiera otras que puedan otorgarse a las organizaciones beneficiarias por la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y que tengan como finalidad la financiación de las labores de asistencia y participación en los foros señalados en el Resuelvo Quinto de esta Orden.

Decimoprimero.– Obligaciones.

Las personas beneficiarias asumirán, con carácter general, las obligaciones que se establecen en el artículo 50.2 de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y en particular la de facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida, en el ejercicio de sus funciones, respecto de las ayudas recibidas con cargo a la presente disposición.

Decimosegundo.– Incumplimiento.

El incumplimiento por parte de la persona beneficiaria de los términos establecidos en la presente Orden o la falsedad de los datos presentados, determinará, previa tramitación del oportuno expediente incoado al efecto por la Dirección de Agricultura y Ganadería con audiencia de la persona beneficiaria por un período de quince días, la pérdida de la ayuda y la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco en el plazo máximo de dos meses, la cuantía percibida, incrementada con los intereses legales que resultaren de aplicación, en los términos establecidos en la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda del País Vasco y de conformidad con el procedimiento previsto en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán las personas interesadas interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, en el plazo

Bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epearen barruan. Kasu bietan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko da kontatzen epea.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abuztuaren 6a.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako sailburua,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o bien, directamente, recurso contencioso-administrativo ante la sala correspondiente del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el mismo diario oficial.

Segunda.– La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 6 de agosto de 2008.

El Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.